

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2020ko IRAILAREN 30ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2020ko irailaren 30ean, eguerdiko 14.00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maialen Alonso Labandibar
Vicente Garcia Momblona
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Mireia Ruiz Delgado


Bere ezin etorria azaltzen du: Aitor Beistegui Fiallegas eta Jesus Maria Tejada Cantero

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada/gokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2020ko uztailaren 28an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 28 de julio de 2020.**
 - **2020ko irailaren 10ean egindako ez ohiko bilkura/ Sesión extraordinaria de fecha 10 de septiembre de 2020.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. 2021 ekitaldirako Udal Ordenantza Fiskalak eta Udal zerbitzuak eskaintzeagatik Tasa eta Precio Publikoen Ordenantzak onartzea, hala bada/ Aprobación de las Ordenanzas Fiscales y Ordenanzas de Tasas y Precios Públicos por prestación de Servicios Municipales para el ejercicio 2021.**
- 5. 2020-2021 ikasturterako Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzaren oinarrien onespina, hala bada/ Aprobación, si procede, de las bases de la subvención para la realización de cursos de euskera a la población de Larraul para el curso 2020-2021.**
- 6. Amankomuneko eszenatoki mugikorraren berritze gastuen onespina, hala bada/ Aprobación, en su caso, de los gastos de reposición del escenario móvil mancomunado.**
- 7. Larraulgo Udalaren batzorde informatzaile osaeraren aldaketaren onespina, hala bada/ Aprobación, si procede, de la modificación de la composición de las Comisiones Informativas del Ayuntamiento de Larraul.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

8. Larraulgo Udalaren korporazioa ordezkaturik egon behar duen organo kolegiatuetakoa ordezkari aldaketaren onespena, hala bada/ Aprobación, en su caso, del cambio de representantes de los órganos colegiados en los que deba estar representada la Corporación del Ayuntamiento de Larraul.
9. Beste batzuk/Otros.
10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2020 urteko uztailaren 28an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.
- ▣ 2020 urteko irailaren 10ean egindako Udalbatzaren ez ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 93/2020 tik 117/2020ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.


HIRUGARRENGO PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	5.943,56
IZFE	2.043,15
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	391,27
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	3.968,44
IZFE	5,90
GUREAK MARKETING,S.L.U.	5,89
CORREOS	36,83
BASAJAUN LIBURUDENDA	22,40
BASAJAUN LIBURUDENDA	77,75
NORA URBIZU	22,40
SETALDE GROUP	3,45
ASTEASUKO UDALA	440,00
MARIA PILAR OTAEGI	30,94

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengo,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **12.991,98** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARRENGO PUNTUA

2021 EKITALDIRAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIK TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2021 urterako udal ordenantza fiskalak aztertzeo unea dela.

Ikusirik 2020 urteko irailaren 21ean Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostena, non jasotzen den ordenantza fiskalak sortu, aldatu eta ezabatzeko jarraitu beharreko prozedimentua, batetik, eta bestetik, 2020ko ekitaldian Udala aplikatzen datorren zerga eta tasak.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, ahobatez,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2021 urterako zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalari dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

1. ZERGA


1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

2020 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK:

- Hiri Ondasun Higiezin gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,3.
- Gainerako hiri ondasun higieziinei aplikagarri zaien karga tasa: %0,23.
- Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,6.

TARIFAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

2020 URTEAN INDARREAN EGON DIREN HOBARIAK



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Famili Ugariak (3 ume edo gehiago) % 50.
- Eguzki aprobetxamendu termiko sistemak %25.

HOBARI HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

2. EKONOMI IHARDUEREN GAINEKO ZERGA

Koefizientea gehienez 2,2 arte igo daiteke. Topean dago, beraz ezin liteke igo.

KOEFIZIENTEA MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

Ez dago hobaririk onartuta.

3. TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

2020 URTEAN INDARREAN EGON DIREN HOBARIAK

- Ibilgailu historikoak % 50.
- Zerga-kuotaren %75eko hobaria, ibilgailuen motorraren ezaugarrien arabera eta horiek ingurugiroan duten eraginaren arabera
- Hobari hau %95ekoa izango da, motor elektrikoa dueten ibilgailuen kasuan


HOBARI HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

2020 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK.

Gaur egun % 1,73 koefizientea aplikatzen da

TARIFAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

Ibilgailu mota eta potentzia	Euroak	Koefizientea	Proposamena
A) Turismoak:			
9 zaldi fiskal bitartekoak	31,81	%1,73	31,81
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak	63,63	%1,73	63,63
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak	106,05	%1,73	106,05
14 - 15,99 zaldi f.bitartekoak	148,47	%1,73	148,47
16 - 19,99 zaldi f.bitartekoak	190,89	%1,73	190,89
20 zaldi fiskaletik gorakoak	233,31	%1,73	233,31



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

B) Autobusak:			
21 plaza bitartekoak	144,11	%1,73	144,11
21 - 50 plaza bitartekoak	205,25	%1,73	205,25
50 plazatik gorakoak	256,56	%1,73	256,56
C) Kamioiak:			
1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria	73,14	%1,73	73,14
1.000 - 2.999 kg. bitarteko	144,11	%1,73	144,11
2.999 - 9.999 kg. Bitarteko	205,25	%1,73	205,25
9.999 kg-tik gorako	256,56	%1,73	256,56
D) Traktoreak:			
16 zaldi fiskal bitartekoak	30,57	%1,73	30,57
16 – 25 zaldi f. bitartekoak	48,04	%1,73	48,04
25 zaldi fiskaletik gorakoak	144,11	%1,73	144,11
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuen atoi eta erdi-atoiak:			
750-1000 kg. bitarteko karga erabilgarria	30,57	%1,73	30,57
1.000 - 2.999 kg. Bitarteko k.e.	48,04	%1,73	48,04
2.999 kg.tik gorako karga e	144,11	%1,73	144,11
F) Gainerako ibilgailuak:			
Ziklomotoreak	7,80	%1,73	7,80
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak	7,80	%1,73	7,80
Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartek	13,36	%1,73	13,36
Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartek	26,73	%1,73	26,73
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartek	53,46	%1,73	53,46
Motozikletak 1.000 cctik gora	106,90	%1,73	106,90


4. ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA

Ondorengo hobaria mantentzea proposatzen da:

% 50-eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Hobari hau aplikatzeko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.
- Mugikortasun baremoan, gutxienez 7 puntu izatea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarria eraikina ezgaitasunen bat duen pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.
- Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

2020 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK

Baserrien berrikuntza: % 2,50 Onuradun izateko nekazaritza ustialekuen erroldatze agiria aurkeztu beharko du.

Besteak:

- | | |
|--|--------|
| a) 60.000,00 euro arteko aurrekontua dutenak: | %4,50. |
| b) 60.000,01 euro baino gehiagoko aurrekontua: | %5,00. |

TIPOAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

5. HIRILURREN BALIOEN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA


2020 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK:

Portzentaiak:

- | | |
|------------------------------|------|
| a) 1 urte 5 urtera bitarteko | %3,6 |
| b) 10 urte artekoa | %3,4 |
| c) 15 urte artekoa | %3,1 |
| d) 20 urte artekoa | %2,9 |

Karga Tasa: % 6,30 da eta ezin du % 10^a gainditu

TARIFAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2. TASAK

1. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

2020 URTEAN INDARREAN DAUDEN TARIFAK


1.1. UR-HORNIDURAREN ZERBITZUA:

Ur horniketa: Ur kontsumoa	2020	2021
1.1.1. Etxez-etxeko ur hornidura		
30m ³ .bitartekoa, hiru hilabetea	18,00€	18,00€
31m ³ tik goragokoa, hiru hilabetea	0,74€/m ³ bakoitza	0,74€/m ³ bakoitza
1.2. Azpiegitura kanona: Guztientzat, hiruhilabeteko	12,00€	12,00€
1.3. Udal azpiegituren mantentzea Guztientzat, hiruhilabeteko	10,00 €	10,00 €
1.4.- Hasierako engantxea etxe berrietan, etxeko	120,00€	120,00€
1.5.- Hobariak: Gizarte ongizateak proposatuak ikus I. eranskina.		

1.2. ZABOR BILKETA ZERBITZUA:

2020 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK

ZABORRAK	2020	2021
1. Etxez-etxeko bilketa, hiruhileko	34€	34€
2. Industria, komertzio eta taberna bilketa, hiruhileko	48€	48€
3. Etxez-etxeko bilketa, konpostaia egiten ez dutenak, hiruhileko	86€	86€
4. Industria, komertzio eta taberna bilketa, konpostaia egiten ez dutenak, hiruhileko	120€	120€
5. Hobariak:		



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


Gizarte ongizateak proposatuak ikus I. eranskina

1.3. HIRIGINTZ BAIMENAK ETA HIRIGINTZ DOKUMENTUAK IZAPIDATZEAGATIK

Egun indarrean dauden tasak ondorengoak dira:

DOKUMENTU ADMINISTRATIBOEN IGORPENA	Euroak
1.Hirigintza kontsulta	80€
2. Segregazio baimena	80€
3. Lehen erabilera baimena	105€/etxeko
4. Edozein P.E.R.I. , Zati Plana, Urbanizazio proiektu, konpentsazio proiektu	1.600€
5. 60.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea	30€
6. 60.000 euro baino gehiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea	50€
7. Jarduera baimenak: - Klasifikatutako jarduera: -Klasifikatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa:.	110,00 € 80,00 €
8. Baimenik gabeko edo ezkutuko obra baimenaren legeztapena: Obra lizentzia emateagatik ateratako tasaren %200.	

AIPATURIKO TASAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1.4.-HILETA ZERBITZUA

Egun indarrean dauden tasak ondorengoak dira:

HILETA ZERBITZUA	Euroak
1.Hezurtegiaren emakida: Behin-betiko emakida, plaka barne	195€
2. Nitxoan emakida: -15 urteko epean, plaka (familiak erosi beharko du)eta apala -5 urte bitarteko luzapenagatik	180€ 125€
3. Lurperatze tasa nitxoan	48

AIPATURIKO TASAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

1.5. KIROL INSTALAZIOEN ERABILERA:


KIROL INSTALAZIOAK	Euroak
1.Kirol instalakuntzen erabilera	3€/orduko

AIPATURIKO TASAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

1.6. MAPEN SALMENTA:

MAPAK	Euroak
1. Mapa Handiak	3€
2. Mapa txikiak	1€

AIPATURIKO TASA HAUEK EZABATZEA PROPOSATZEN DA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**1.7.HAURREK ETA GAZTEAK SUSTATZEKO SAILAREN ZERBITZU-
EMAKIDA ETA JARDURA GAUZATZEA:**

JARDUERAK	Euroak
1.Euskal Dantza: -Lehenengo haurra -2. Eta 3. haurrak	15€/ hileko 12€/ hileko
2.Esku pilota -Lehenengo haurra -2. Eta 3. haurrak	12€/ hileko 9€/ hileko

AIPATURIKO TASAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA


ONDOREN AURKEZTEN DIREN TASA BERRI HAUEK PROPOSATZEN DIRA:

3.Gorputz adierazpena, antzerkia eta zirkoa -2012-2016 artean jaiotako larrauldarrek -2012-2016 artean jaiotako erroldatu gabeak -2004-2011 artean jaiotako larrauldarrek -2004-2011 artean jaiotako erroldatu gabeak	20,00€/hileko 25,00€/hileko 25,00€/hileko 30,00€/hileko
4.Ikastaro desberdinak (Kostearen arabera finkatuko dira, behin ere ezingo du izan, kostea baino handiagoa)	
-Dantza, musika, antzerki etab. ikuskizunak	10,00€ gehienez

2. UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TADAK

Tasa hauen barnean ondorengo kontzeptuak daude aurreikusiak eta onartuak:

2.1. UDAL KALEETAKO ZOLUA, HEGALKINA ETA LURRAZPIA PRIBATIBOKI ERABILTZEA EDO BEREZIKI APROBETXATZEA, HORNIDURA ZERBITZUA USTIATZEKO ENPRESEN ALDE



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udal kaleetako zolua, hegalkina eta lurrazpia hornidura zerbitzua ustiatzeko enpresen alde pribatiboki erabiltzeari edo bereziki aprobetxatzeari dagokion prezioa, zerbitzu horiek gehientsuenengan edo biztanlegoaren zati garrantzitsuarengan eragina dutenean, enpresa horiek udalerrian urtero lotzen duten fakturazioko diru sarrera gordinen %1,5ekoa izango da.

BIGARRENA.- 2021 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

2021 EKITALDIRAKO ZERGA EGUTEGIA

1.- HOBARI ESKAERA:

- 2021 urteko otsailaren 1etik martxoaren 1era bitartean.

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:

2021 urteko apirilaren 6tik ekainaren 7 arte.

3.- URA ETA ZABORREN TASA:

2021 urteko maiatzaren 3tik uztailaren 5 arte.

2021 urteko abuztuaren 2tik urriaren 4 arte.

2021 urteko urriaren 28tik abenduaren 28 arte.

2022 urteko otsailaren 1etik apirilaren 1 arte.


HIRUGARRENA.- Erabakitakoaren berri udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz ematea, 30 laneguneko epea irekiz edonork espedientea aztertu eta erreklamazioak edota iradokizunak aurkezteko, bere kasuan. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak behin-betiko onartutzat emango dira beste erabakirik hartu gabe.

BOSTGARRENA PUNTUA

2020-2021 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTARAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN OINARRIEN ONESPENA, HALA BADA

Alkate-Lehendakari andreak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andreak 2020-2021 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2020-2021 ikasterterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Diru-laguntza eskaera egiteko epea, 2021ko uztailaren 31arte zabalduko da.

HIRUGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

SEIGARREN PUNTUA

AMANKOMUNeko ESZENATOKI MUGIKORRAREN BERRITZE GASTUEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusita Asteasu, Aduna eta Alkizako udalerriekin batera amankomunean eszenatoki mugikor bat duela Larraulgo Udalak.

Ikusita amankomunean dagoen eszenatoki mugikorrek hainbat konponketa behar dituela, oholtzan, toldoan etb. Aipaturiko lanak egin dira guztira 7.138,16 eurotako gastua egin delarik.

Ikusita, Asteasuko udalak aurkezturiko gastuen kitapena, Larraulgo Udalari 990,12 eurotako gastu bat egitea dagokiola.

Ikusita 2020 urteko udal aurrekontuetako 1.0000.430.338.00.01 "Asteasuko udala: eszenatokiaren ekarpena" izeneko kontu sailan badagoela gastu honi aurre egiteko adina diru-kopurua.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Asteasuko Udalari, 990,12 eurotako ordainketa bat egitea, amankomuneko eszenatoki mugikorraren berritze gastuen kitapenaren ondorioz.

BIGARRENA: 990,12 eurotako gastua onestea, eta bere ordainketa 1.0000.430.338.00.01 "Asteasuko Udala: Eszenatokiaren ekarpena" kontu sailaren kontura egin dadila agintzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALAREN BATZORDE INFORMATZAILE OSAERAREN ALDAKETAREN ONESPENA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusita, Larraulgo udalaren batzorde informatzaileen osaketak, 2019ko uztailaren 4ko Udalbatzarrean onestu zirela.

Ikusita, 2020ko ekainaren 2an egindako Udalbatzarrean, aipaturiko batzorde informatzaile osaerak aldatu egin zirela, Aitor Beistegui Fiallegas udal zinegotziak, arrazoi pertsonalak medio, ezin zuelako hauetan parte hartu.

Ikusita, Kulturako batzorde informatzailearen osaketan, Maite Arana Perez alkatea zegoela, agenda arazoak medio, proposatzen da, bere ordez, Vicente Garcia Momblona zinegotzia kulturako batzorde informatzaileko kide izendatzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Kultura batzorde informatzaileko kide osaketa berria onestea, ondoren zehazten diren kideak osatuko dutelarik, aipaturiko batzordea:

Jesus Maria Tejada Cantero, Maialen Alonso Labandibar eta Vicente Garcia Momblona.

Batzorde burua: Jesus Maria Tejada Cantero.

ZORTZIGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALAREN KORPORAZIOA ORDEZKATUTA EGON BEHAR DUEN ORGANO KOLEGIATUETAKO ORDEZKARI ALDAKETAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusita, 2019ko uztailaren 4ean eginiko ez ohiko udalbatzarrean Larraulgo udalaren korporazioa ordezkatuta egon behar duen organo kolegiatuetako ordezkariak izendatu zirela.


Ikusirik Aitor Beistegi Fiallegas udal zinegotziak azaldu duela pertsonal arrazoiak medio, ezin izango duela izendatutako organu kolegiatu guztietako ordezkaria izan.

Gaia azterturik, Udalbatzak, aho batez, jarraian aipatzen diren organo kolegiatuentzat ondorengo ordezkariak izendatzea erabakitzen du:

➤ Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartea:

Titularra: Jesus Maria Tejada Cantero
Ordezkoa: Maialen Alonso Labandibar

➤ Tolosako Hiltegi Mankomunatua:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Titularra: Jesus Maria Tejada Cantero
Ordezkoa: Aitor Beistegui Fiallegas

➤ Gipuzkoako Ur Kontsortzioa:

Titularra: Maite Arana Perez
Ordezkoa: Jesus Maria Tejada Cantero

➤ Tolosaldea Garatzen:

Titularra: Maite Arana Perez
Ordezkoa: Aitor Beistegui Fiallegas
2.Ordezkoa: Jesus Maria Tejada Cantero

➤ Apatta-erreak industrigunea:

Titularra: Aitor Beistegui Fiallegas
Ordezkoa: Jesus Maria Tejada Cantero
2.Ordezkoa: Maite Arana Perez

➤ Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea:

Titularra: Aitor Beistegui Fiallegas
Ordezkoa: Jesus Maria Tejada Cantero

➤ Tolosaldeko komunikabideak:

Titularra: Maialen Alosa Labandibar
Ordezkoa: Jesus Maria Tejada Cantero

➤ Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea:


Titularra: Maialen Alonso Labandibar
Ordezkoa: Jesus Maria Tejada Cantero

➤ Kirol Elkarteak:

Titularra: Jesus Maria Tejada Cantero
Ordezkoa: Jose Antonio Rodriguez Rodriguez

➤ Pello Errota Eskola

Titularra: Maialen Alonso Labandibar
Ordezkoa: Jesus Maria Tejada Cantero



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BEDERATZIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

9.1.T.E.E. JAUNAK AURKEZTURIK IDATZIAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik, T.E.E. jaunak ondorengo idatzia aurkeztu duela:

“Honakoa ESKATZEN DUT

Ez dadila 5G teknologia ezarri bizi naizen udal honetan, haren kaltegarritasun eza frogatu arte.

Telekomunikazio-enpresek ez dute informazio nahikorik pertsonen, izaki bizidunen eta ingurumenaren osasun-arrikuei buruz, 5G teknologia berriari eta nazio-mailan ezartzeari dagokionez, eta beste hiri eta herrialde batzuetan instalazio hori baztertu dute arrazoi berberengatik.

Udalak metropoli-eremu osoan 5Gko instalazioak geldiaraztea eskatzen dut, azterketa independenteak egin arte, agerian gera dadin 5Ga ez dela inola ere kaltegarria pertsonen, beste espezie batzuen eta ingurumenaren osasunerako.

Eskatzen dizuet kontuan har dezazuela nire eskaera eta, Europako Kontseiluaren 1815 Ebazpenak gomendatzen duen bezala, udalak zuhertasun-printzipioa aplika dezala eta arrazoizko neurri guztiak har ditzala eremu elektromagnetikoekiko esposizio murrizteko eta antenen, errepikagailuen edo azpiegituraren edozein instalazio bertan behera uzteko, harik eta osasun-arloko profesionalek, elektromagnetismoan adituek eta zientzialari ezagunek beharrezko bermeak eskaini arte.

Halaber, kontuan hartu beharreko dokumentu garrantzitsuak dira Arartekoak teknologia horiek ezarri aurretik duten eragina ebaluatzeko egindako eskaera, bai eta Ekologistak Martxan elkarteak 5G Plan Nazionala ofizioz berrikusteko eskatzen duen errekurtsoa ere.


Teknologia berri horri buruzko informazio zehatza aurkituko duzue 5G *International Appeal* delakoan. Bertan, ondorio kaltegarriak deskribatzen dira, bai eta ezarpen horrekin betetzen ez diren nazioarteko akordioak ere.

Gure herriaren eta herrikideen onerako, eskertzen dizuet Udalak neurri egokiak hartzea.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: T.E.E. jaunari jakinaraztea, gaiak udalaren eskumena gainditzen



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

duela.

9.2.M.P.O.U. ANDREAK AURKEZTURIKO IDATZIAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik, M.P.O.U. andreak ondorengo idatzia aurkeztu duela:

“Honakoa ESKATZEN DUT

Ez dadila 5G teknologia ezarri bizi naizen udal honetan, haren kaltegarritasun eza frogatu arte.

Telekomunikazio-enpresek ez dute informazio nahikorik pertsonen, izaki bizidunen eta ingurumenaren osasun-arrikuei buruz, 5G teknologia berriari eta nazio-mailan ezartzeari dagokionez, eta beste hiri eta herrialde batzuetan instalazio hori baztertu dute arrazoi berberengatik.

Udalak metropoli-eremu osoan 5Gko instalazioak geldiaraztea eskatzen dut, azterketa independenteak egin arte, agerian gera dadin 5Ga ez dela inola ere kaltegarria pertsonen, beste espezie batzuen eta ingurumenaren osasunerako.

Eskatzen dizuet kontuan har dezazuela nire eskaera eta, Europako Kontseiluaren 1815 Ebazpenak gomendatzen duen bezala, udalak zuhertasun-printzipioa aplika dezala eta arrazoizko neurri guztiak har ditzala eremu elektromagnetikoekiko esposizio murrizteko eta antenen, errepikagailuen edo azpiegituraren edozein instalazio bertan behera uzteko, harik eta osasun-arloko profesionalak, elektromagnetismoan adituek eta zientzialari ezagunek beharrezko bermeak eskaini arte.

Halaber, kontuan hartu beharreko dokumentu garrantzitsuak dira Arartekoak teknologia horiek ezarri aurretik duten eragina ebaluatzeko egindako eskaera, bai eta Ekologistak Martxan elkarteak 5G Plan Nazionala ofizioz berrikusteko eskatzen duen errekurtsoa ere.


Teknologia berri horri buruzko informazio zehatza aurkituko duzue 5G *International Appeal* delakoan. Bertan, ondorio kaltegarriak deskribatzen dira, bai eta ezarpen horrekin betetzen ez diren nazioarteko akordioak ere.

Gure herriaren eta herrikideen onerako, eskertzen dizuet Udalak neurri egokiak hartzea.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: M.P.O.U. andreari jakinaraztea, gaiak udalaren eskumena gainditzeko duela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

9.3.M.E.O. ANDREAK AURKEZTURIKO IDATZIAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik, M.E.O. andreak ondorengo idatzia aurkeztu duela:

“Honakoa ESKATZEN DUT

Ez dadila 5G teknologia ezarri bizi naizen udal honetan, haren kaltegarritasun eza frogatu arte.

Telekomunikazio-enpresek ez dute informazio nahikorik pertsonen, izaki bizidunen eta ingurumenaren osasun-arrikuei buruz, 5G teknologia berriari eta nazio-mailan ezartzeari dagokionez, eta beste hiri eta herrialde batzuetan instalazio hori baztertu dute arrazoi berberengatik.

Udalak metropoli-eremu osoan 5Gko instalazioak geldiaraztea eskatzen dut, azterketa independenteak egin arte, agerian gera dadin 5Ga ez dela inola ere kaltegarria pertsonen, beste espezie batzuen eta ingurumenaren osasunerako.

Eskatzen dizuet kontuan har dezazuela nire eskaera eta, Europako Kontseiluaren 1815 Ebazpenak gomendatzen duen bezala, udalak zuhertasun-printzipioa aplika dezala eta arrazoizko neurri guztiak har ditzala eremu elektromagnetikoekiko esposizio murrizteko eta antenen, errepikagailuen edo azpiegituraren edozein instalazio bertan behera uzteko, harik eta osasun-arloko profesionalak, elektromagnetismoan adituek eta zientzialari ezagunek beharrezko bermeak eskaini arte.

Halaber, kontuan hartu beharreko dokumentu garrantzitsuak dira Arartekoak teknologia horiek ezarri aurretik duten eragina ebaluatzeko egindako eskaera, bai eta Ekologistak Martxan elkarteak 5G Plan Nazionala ofizioz berrikusteko eskatzen duen errekurtsioa ere.


Teknologia berri horri buruzko informazio zehatza aurkituko duzue 5G *International Appeal* delakoan. Bertan, ondorio kaltegarriak deskribatzen dira, bai eta ezarpen horrekin betetzen ez diren nazioarteko akordioak ere.

Gure herriaren eta herrikideen onerako, eskertzen dizuet Udalak neurri egokiak hartzea.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: M.E.O. andreari jakinaraztea, gaiak udalaren eskumena gainditzen duela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BOSTGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 14:30 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.